eta hezkuntza-proiektua.
  4. Jarrai dezala inspektzio-jarduerekin bai lurralde-  
batzordeetatik bai Hezkuntza Ikuskaritzatik, ber-  
matzeko aldera indarrean dagoen araudiak hez-  
kuntza-komunitatea osatzen duten pertsonen  
aitortutako eskubide eta betebeharrak gauza-  
tzea".
- \*\*\*
- cuela inclusiva, equitativa e innovadora de cali-  
dad para lograr un mayor equilibrio, cohesión  
social, interculturalidad y convivencia en nues-  
tros centros educativos.
2. Seguir mejorando la calidad del conjunto del  
sistema educativo, avanzando en una mayor y  
más eficiente gestión de los recursos destinados  
a educación, teniendo al alumno o a la alumna  
como centro del sistema y garantizando la  
igualdad de oportunidades desde la justicia  
social y la equidad.
  3. Garantizar de manera efectiva la libertad y el  
derecho de las familias para elegir libremente el  
centro y proyecto educativo que quieren para  
sus hijos e hijas.
  4. Continuar con las actividades de inspección  
tanto desde las comisiones territoriales como  
desde la Inspección Educativa, para garantizar  
el ejercicio de los derechos y deberes de las  
personas que conforman la comunidad educati-  
va reconocidos por la normativa vigente".
- \*\*\*



5. gaia. Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako legez besteko proposamena, Bilboko Zabalburu ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A eredu bermatzeari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00608]

-----

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2019-07-12

. Aurkeztutako zuzenketa:

- EA-NV eta SV-ES (1 osokoa)

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 5. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, relativa a garantizar en el colegio Zabalburu de Bilbao el modelo A en el ciclo de Logística y Transporte. [11\11\02\01\00608]

-----

. Presentación de la proposición no de ley: 12.07.2019

. Enmienda presentada:

- EA-NV y SV-ES (1 totalidad)

-----

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación





**Relativa a garantizar en el colegio Zababuru de Bilbao el modelo A en el ciclo de Logística y Transporte** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00608)

La Mesa, en su reunión del día 23 de julio de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento, tiene el honor de presentar la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno, relativa a garantizar en el colegio Zababuru de Bilbao el modelo A en el ciclo de Logística y Transporte.

Justificación

Cualquier familia debe tener garantizado su derecho a elegir libremente la educación que quiere para sus hijos. Los padres y madres han de poder elegir con las mínimas limitaciones el centro y modelo en el que quieren que estudien sus hijos. La Constitución ampara el derecho de los padres y madres a decidir sobre el tipo de educación que quieren para sus hijos, y la Ley de la Escuela Pública Vasca reconoce el derecho de los padres, madres y alumnos a elegir los modelos que deseen, así como la obligación de los poderes públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco en el desarrollo de los mecanismos administrativos que garanticen la libertad de esa elección.

La sociedad vasca es una sociedad plural, y los ciudadanos que la conformamos representamos una realidad lingüística diversa, en la que se pueden encontrar distintas realidades sociolingüísticas, por ello es prioritario defender la libertad de todos los ciudadanos de la CAV a recibir la educación que decidan libremente.

Tras la finalización del plazo de prematrícula hemos tenido constancia que, aunque había demanda suficiente para crear un grupo de modelo A en el ciclo de Logística y Transporte del Colegio Zababuru de Bilbao, se ha decidido impartir únicamente en modelo B, aunque había peticiones suficientes para formar otro grupo más en modelo A.

**Bilboko Zababuru ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A eredu bermatzeari buruz** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00608)

Mahaiak, 2019ko uztailaren 23ko bilkuran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Euskal Talde Parlamentario Popularrak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularrako legebiltzarkideak, indarrean dagoen Erregelamenduaren babesean, legez besteko proposamen hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Bilboko Zababuru ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A eredu bermatzeari buruz.

Arrazoiak

Edozein familiak seme-alabentzat nahi duen hezkuntza aukeratzeko eskubidea bermatuta izan behar du. Gurasoek aukeratu ahal izan behar dute ahalik eta mugaketa gutxienekin seme-alaben ikasketetarako nahi duten ikastetxea eta eredu. Konstituzioak babestu egiten du gurasoen eskubidea erabakitzeke zer nolako hezkuntza nahi duten seme-alabentzako; halaber, Euskal Eskola Publikoaren Legeak aitortzen du gurasoek eta ikasleek eskubidea dutela nahi dituzten ereduak aukeratzeko, eta Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoek derrigor-tuta daudela aukeraketa hori askatasunez egitea bermatuko duten mekanismo administratiboak garatzera.

Euskal gizartea plurala da, eta bera osatzen dugun hiritarrok hizkuntza-errealitate askotarikoa ordezkatzeko dugu, eta horretan, errealitate soziolinguistikoko desberdinak aurki daitezke; horregatik, lehentasunez defendatu behar da EAEko hiritar guztien askatasuna, erabakitzen duten hezkuntza jaso ahal izateko.

Aurrematrrikularako epea amaitu ondoren, jakin izan dugu, Bilboko Zababuru ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A eredu talde bat sortzeko nahikoa eskaera bazegoen ere, erabaki dela B eredu bakarrik ematea, A eredu beste talde bat sortzeko nahikoa eskaera bazegoen ere.



Por todo ello se propone la aprobación de la siguiente proposición no de ley:

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a garantizar, de manera efectiva, la libertad y el derecho de las familias para elegir libremente el centro y modelo lingüístico que quieren para sus hijos.
2. El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a modificar de oficio la planificación, tal y como recoge la normativa vigente, para garantizar la posibilidad de cursar el ciclo de Logística y Transporte en modelo A en el Colegio Zabalburu de Bilbao, mientras exista demanda suficiente.

En Vitoria, a 12 de julio de 2019

**Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco. Borja Sémpér Pascual, portavoz**

\*\*\*

Horregatik guztiagatik, ondoko legez besteko proposamena onartzea proposatzen dugu:

1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio berma dezala, modu eraginkorren, familiek duten askatasuna eta eskubidea seme-alabentzat nahi duten ikastetxea eta irakasteredua askatasunez aukeratzeko.
2. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio ofizioz alda dezala plangintza, indarrean dagoen araudiak jasotakoaren arabera, Bilboko Zababuru ikastetxean Logistika eta Garraioa zikloa A ereduan egin ahal izatea bermatzeko, nahikoa eskaera dagoen bitartean.

Gasteizen, 2019ko uztailaren 12an

**Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Borja Sémpér Pascual, bozeramailea**

\*\*\*



**Bilboko Zabalburu ikastetxeko Logistika eta Garraioa zikloan A ereduaren bermatzeari buruz**  
(Zuzenketa)  
(11/11.02.01.00608)

Mahaiak, 2019ko irailaren 17ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Euskal Talde Parlamentario Popularraren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK**

#### **OSOKO ZUZENKETA**

- "1. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Euskadiko Lanbide Heziketako 4/2018 Legean oinarrituz, bermatu dezala euskal hizkuntzaren presentzia normalizatua lanbide heziketaren sisteman, hizkuntza alorreko xedapen orokorrak aplikatuz, hezkuntza-jarduerak egiten dituztenek bi hizkuntza ofizialak modu egokian menperatzea bermatzeko, horretarako euskara eta gaztelaniaren eredu elebiduna zabalduz.
2. Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ezen, Lanbide Hezikuntzako hizkuntza-planifikazioaren esparruan, eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-ereduaren egitura errespetatuz, jarrai dezala A ereduaren eskariari erantzuna ematen, eskari hori dagoen neurrian".

\*\*\*

**Relativa a garantizar en el colegio Zabalburu de Bilbao el modelo A en el ciclo de Logística y Transporte** (Enmienda)  
(11/11.02.01.00608)

La Mesa, en su reunión del día 17 de septiembre de 2019, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición de ley formulada por el grupo parlamentario Popular Vasco, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS**  
**VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

#### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

- "1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que, en base a la Ley 4/2018 de Formación Profesional del País Vasco, garantice la presencia normalizada de la lengua vasca en el sistema de formación profesional, dando así aplicación a las disposiciones generales en materia lingüística, de forma que se garantice un dominio adecuado de ambas lenguas oficiales por parte de quienes realicen las actividades formativas, extendiendo para ello el modelo bilingüe de euskera y castellano.
2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que en el marco de la planificación lingüística en la Formación Profesional, y respetando la estructura de modelo lingüístico de cada centro, siga atendiendo, en la medida en que la haya, a la demanda existente en el modelo A".

\*\*\*







6. gaia. EH Bildu talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, gizarte-ekimeneko ikastetxeen auziaren aurrean Hezkuntza Sailak gidaritza hartzeari buruz. Eztatanda eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00590]

-----

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2019-05-03

. Aurkeztutako zuzenketa:

- EA-NV eta SV-ES (1 osokoa)

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 6. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, relativa a que el Departamento de Educación tome el liderato en la cuestión de los centros de enseñanza de iniciativa social. [11\11\02\01\00590]

-----

. Presentación de la proposición no de ley: 03.05.2019

. Enmienda presentada:

- EA-NV y SV-ES (1 totalidad)

-----

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación





**Gizarte-ekimeneko ikastetxeen auziaren aurrean Hezkuntza Sailak gidaritza hartzeari buruz**  
(Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00590)

Mahaiak, 2019ko maiatzaren 7ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, EH Bildu talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Zioa

Gizarte-ekimeneko auzia irteerarik gabeko puntuan aurkitzen dela agerikoa da. Okertzeko beldurrik gabe esan genezake otsaila eta martxo artean aldean artean egondako gerturatze eta planteamenduen mugimenduak bere horretan geratzeaz gain, martxoaren azken asteetan atzerapausoak eman zirela, ordura arteko elkarrizketa apurrak desagertzeraino eta blokeoa nagusitzeraino. Beraz, aurkitzen garen egoera benetan kezagarria da begiratzen den ikuspuntutik begiratuta. Baina kezagarriena Hezkuntza Sailaren jarrera izaten ari da edo, hobeto esanda, haren ekimen falta, bere erantzukizun utzikeria egiteraino. Izan ere, ezin dugu ahaztu ez gaudela lan-gatazka soil baten aurrean eta Jaurlaritzaren marko juridikoaren eta finantziazioaren pean aurkitzen direla gizarte-ekimeneko ikastetxeak. Beraz, beste hainbat ekimen eta eguneroko jardunear esku-hartze zuzenak egiten dituen bezala, Hezkuntza Sailak, borondatea izanez gero, eskura dituen bitartekoen bidez gizarte-ekimeneko esparrua aurkitzen den egoeraren norabidea baldintzatu dezake, konponbidea lortu arte.

Ondorioz, ikusita dagoeneko maiatzean gaudela eta egoera gehiago usteltzen ezin dela utzi, beharrezkoa ikusi dugu ekimena hartzea, Hezkuntza Sailak dagozkion ardurak bere egin ditzan.

#### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio:

- Premiaz, dagozkion ardurak bere eginez,

**Relativa a que el Departamento de Educación tome el liderato en la cuestión de los centros de enseñanza de iniciativa social** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00590)

La Mesa, en su reunión del día 7 de mayo de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Justificación

Es evidente que el conflicto de la iniciativa social se halla en un punto sin salida. Podemos afirmar sin temor a equivocarnos que, además de haberse paralizado las aproximaciones y movimientos de planteamientos entre las partes que se dieron entre febrero y marzo, durante las últimas semanas de marzo se han dado pasos hacia atrás, hasta el punto de que las escasas conversaciones existentes hasta entonces hayan desaparecido y se haya impuesto el bloqueo. Por lo tanto, la situación en que nos encontramos es realmente preocupante se mire por el punto de vista que se mire. Pero lo más preocupante está siendo la actitud del Departamento de Educación o mejor dicho, su falta de iniciativa, hasta el punto de que ha llegado a hacer dejación de sus responsabilidades. Y es que no podemos olvidar que no estamos ante un simple conflicto laboral y que los centros de iniciativa social se encuentran sometidos al marco jurídico y financiación del Gobierno Vasco. Por lo tanto, el Departamento de Educación, de la misma manera en que lleva a cabo otra serie de iniciativas e intervenciones directas en su actividad diaria, puede, en caso de tener voluntad para ello, condicionar el rumbo de la situación en que se encuentra el ámbito de la iniciativa social a través de los medios de que dispone, hasta conseguir una solución.

En consecuencia, habida cuenta de que estamos en mayo y que no se puede dejar que la situación se deteriore aún más, hemos considerado necesario tomar la iniciativa, a fin de que el Departamento de Educación asuma las responsabilidades que le corresponden.

#### PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento insta al Departamento de Educación:

- A tomar el liderato con urgencia, asumiendo



gidaritza har dezala hilabeteko epean, eta gizarte-ekimeneko ikastetxeen auzian dagoen blokeo-egoera askatu dezala ondorengo lan-ildoen baitan bi aldeen arteko adostasunak bilatuz:

- Langileen birkokapenerako kolektibo guztiak kontuan hartuko dituen planteamenduan.
- Soldaten planteamenduan, ondorengo elementuak aztertuz: erosmen-ahalmena, konsolidazioa, akordioaren iraupena, kolektibo guztiak barneratzea.
- Lan pertsonalerako erreserbatutako ordu osagarrien planteamenduan.

Euskal Herrian, 2019ko maiatzaren 2an

**Rebeka Ubera Aranzeta, EH Bildu taldeko legebiltzarkidea eta bozeramaileordea**

\*\*\*

sus responsabilidades, a fin de desatascar en el plazo de un mes la situación de bloqueo existente en el conflicto de los centros de iniciativa social, buscando acuerdos entre las dos partes en las siguientes líneas de trabajo:

- Planteamiento que tome en cuenta a todos los colectivos para la recolocación de las y los trabajadores.
- Planteamiento relativo a salarios, analizando los siguientes elementos: poder adquisitivo, consolidación, duración del acuerdo, inclusión de todos los colectivos.
- Planteamiento de horas complementarias reservadas al trabajo personal.

Euskal Herria, 2 de mayo de 2019

**Rebeka Ubera Aranzeta, parlamentaria y portavoz suplente del grupo EH Bildu**

\*\*\*

**Gizarte-ekimeneko ikastetxeen auziaren aurrean Hezkuntza Sailak gidaritza hartzeari buruz**  
(Zuzenketa)  
(11/11.02.01.00590)

Mahaiak, 2019ko maiatzaren 28ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea EH Bidu talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketa, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK**  
**TALDE PARLAMENTARIOAK**

#### **OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gizarte ekimeneko lan hitzarmenaren parte direnekin, horretarako eskumena duen Lan Sailaren bitartekaritza bultzatzea.

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio aurrekontu-legearen testuinguruan moduluen eguneratzea azter dezala.

Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Sailari eskatzen dio, bilakaera demografikoa kontuan izanda, enplegua mantentze aldera eta kalitatea bermatuz birkokapen akordioa bultzatzea".

\*\*\*

**Relativa a que el Departamento de Educación tome el liderato en la cuestión de los centros de enseñanza de iniciativa social** (Enmienda)  
(11/11.02.01.00590)

La Mesa, en su reunión del día 28 de mayo de 2019, acuerda admitir a trámite la siguiente enmienda presentada a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario EH Bildu, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS**  
**VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

#### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a impulsar con las partes del acuerdo de iniciativa social, la mediación del Departamento de Trabajo competente en la materia.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a analizar la actualización de los módulos en el contexto de la ley de presupuestos.

El Parlamento Vasco insta al Departamento de Educación a que, teniendo en cuenta la evolución demográfica, impulse un acuerdo de recolocación para mantener el empleo y garantizar la calidad".

\*\*\*





7. gaia. Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako legez besteko proposamena, kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakalari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena. [11\11\02\01\00611]

-----

. Legez besteko proposamena aurkeztea: 2019-07-19

. Aurkeztutako zuzenketak:

- PV-ETP (1 osokoa)
- EH Bildu (1 osokoa)
- EA-NV eta SV-ES (1 osokoa)

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 7. Debate y resolución definitiva de la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, relativa a la brecha existente entre mujeres y hombres en el deporte. [11\11\02\01\00611]

-----

. Presentación de la proposición no de ley: 19.07.2019

. Enmiendas presentadas:

- PV-ETP (1 totalidad)
- EH Bildu (1 totalidad)
- EA-NV y SV-ES (1 totalidad)

-----

Tramitación en el pleno (artículo 175 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación







**Relativa a la brecha existente entre mujeres y hombres en el deporte** (Admisión a trámite)  
(11/11.02.01.00611)

La Mesa, en su reunión del día 23 de julio de 2019, acuerda admitir a trámite para su debate en pleno la PROPOSICIÓN NO DE LEY formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 174.3 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar dentro de los siete días hábiles siguientes al de esta publicación las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Eukene Arana Varas, integrante del grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, al amparo del vigente Reglamento, presenta la siguiente proposición no de ley para su debate en pleno relativa a la brecha existente entre mujeres y hombres en el deporte.

Justificación

La Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres en su artículo 20 recoge de forma explícita el deber de las administraciones públicas vascas de incluir criterios de igualdad en sus contratos y subvenciones. En la misma línea, el VII Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en la CAE establece entre sus objetivos:

- BG12.1 Incrementar el número de instituciones públicas que incluyen cláusulas para la igualdad en su actividad contractual y/o subvencional y que realizan seguimiento de su grado de cumplimiento.
- BG12.2 Incrementar el porcentaje de contratos que incluyen cláusulas para la igualdad.
- BG12.3 Incrementar el porcentaje de subvenciones, convenios y becas que incluyen cláusulas para la igualdad.

Hemos podido comprobar que todavía falta mucho para que este indicador tenga una mínima presencia en clubes deportivos que reciben subvenciones y que en sus acciones fomentan la brecha salarial y la brecha en la redistribución de los tiempos de las instalaciones favoreciendo una práctica deportiva desigual entre niñas y niños, es decir, entre mujeres y hombres.

**Kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakalari buruz** (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.02.01.00611)

Mahaiak, 2019ko uztailearen 23ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea, osoko bilkuran eztabaidatzeko, Elkarrekin Podemos talde parlamentarioak egindako LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 174.3 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki iritzitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, argitalpen hau egin eta hurrengo zazpi egun baliodunen barruan, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**  
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Eukene Arana Varas Elkarrekin Podemos talde parlamentarioko kideak, indarrean dagoen Erregelamenduaz baliatuz, honako legez besteko proposamena aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatzeko, kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakalari buruz.

Arrazoiak

4/2005 Legeak, otsailaren 18koak, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerakoak, argi eta garbi jasotzen du 20. artikuluan euskal administrazio publikoen betebeharrak dela beren kontratu eta diru-laguntzetan berdintasun-irizpideak sartzea. Alde horretatik, EAEko Emakume eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Planak honako hauek jasotzen ditu helburuen artean:

- BG12.1 Kontratu eta/edo diru-laguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta betetzen diren ala ez kontrolatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
- BG12.2 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea.
- BG12.3 Berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten diru-laguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.

Egiaztatu ahal izan dugu ezen oraindik asko falta dela adierazle horrek gutxieneko presentzia izan dezan diru-laguntzak jasotzen dituzten eta beren ekintzetan soldata-arrakala eta instalazioetako denboren banaketan arrakala sustatzen duten klubetan, zeienek nesken eta mutilen, hots, emakumeen eta gizonen arteko kirol praktika desberdina faboratzen baitute.



Con esta iniciativa queremos fortalecer las políticas para contribuir a la eliminación de la brecha en el deporte y para conseguir una mayor igualdad de mujeres y hombres.

Por todo ello se presenta la siguiente

#### PROPOSICIÓN NO DE LEY

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a:

1. Realizar un análisis de la situación actual sobre la igualdad entre mujeres y hombres en el sector deportivo en el que se aborden no solo el acceso y la participación de las mujeres y hombres en el deporte, también los sueldos de las personas entrenadoras por sexo, así como el uso de las instalaciones por sexo en todos los ámbitos deportivos incluyendo clubes que reciban algún tipo de subvención por una institución pública.
2. Implantar en el plazo de un año planes de igualdad en todos los centros deportivos públicos y en aquellos privados que reciban algún tipo de subvención pública.
3. Incluir cláusulas de igualdad, a partir del periodo de subvenciones de 2020, en las bases reguladoras de las subvenciones públicas, que garanticen que las entidades solicitantes no inciden en la Brecha salarial y cláusulas de igualdad para la redistribución de los tiempos y la corresponsabilidad en términos de igualdad para facilitar la práctica del deporte en igualdad de condiciones.
4. Reducir la brecha de género comunicativa que se da en la emisión de información deportiva en nuestra radio televisión pública vasca en un 80 % en el plazo de un año.

Vitoria-Gasteiz, a 17 de julio de 2019

**Eukene Arana Varas, parlamentaria del grupo Elkarrekin Podemos. Lander Martínez Hierro, portavoz**

\*\*\*

Ekimen honekin indartu egin nahi ditugu kiroleko arrakala desagerrarazten laguntzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun handiagoa lortzeko politikak.

Hori guztia dela eta, honakoa aurkezten dugu:

#### LEGEZ BESTEKO PROPOSAMENA

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Egin dezala azterketa bat kirolaren alorreko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko egungo egoeraz, non aztertuko diren emakumeek eta gizonen kirolean duten sarbidea eta parte-hartzea ez ezik, baita entrenatzaileek sexuaren arabera dituzten soldatak eta kirol arlo guzietako instalazioak sexuaren arabera duten erabilera ere, erakunde publikoren baten diru-laguntzarik jasotzen duten klubak barne.
2. Ezar ditzala urtebeteko epean berdintasun-planak kirol zentro publiko guztietan eta diru-laguntza publikorik jasotzen duten zentro pribatuetan.
3. Sar ditzala berdintasun-klausulak, 2020ko diru-laguntza alditik aurrera, diru-laguntza publikoak arautzen dituzten oinarrietan, zeinek bermatuko duten ezen eskaera egiten duten erakundeek ez dutela soldata-arrakalari eusten jarraitzen, eta berdintasun-klausulak denborak birbanatzeko eta erantzunkidetasuna bideratzeko, kirola baldintza-berdintasunean praktikatzeari bide emateko.
4. % 80 murriztu dezala, urtebeteko epean, gure euskal irrati-telebista publikoan ematen den kirol informazioan gertatzen den generoaren araberako komunikazio-arrakala.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 17a

**Eukene Arana Varas, Elkarrekin Podemos taldeko legebiltzarkidea. Lander Martínez Hierro, bozeramailea**

\*\*\*



**Relativa a la brecha existente entre mujeres y hombres en el deporte** (Enmiendas)  
(11/11.02.01.00611)

La Mesa, en su reunión del día 17 de septiembre de 2019, acuerda admitir a trámite las siguientes enmiendas presentadas a la proposición no de ley formulada por el grupo parlamentario Elkarrekin Podemos, y ordena su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**GRUPO PARLAMENTARIO POPULAR VASCO**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta a Emakunde a realizar un análisis de la presencia de la mujer en el ámbito deportivo en Euskadi a todos los niveles, con las recomendaciones que se consideren oportunas, de forma integral, para fomentar el deporte femenino y abordando las carencias que se detecten, dirigido a instituciones, federaciones, clubes deportivos y demás agentes vinculados".

**EH BILDU TALDE PARLAMENTARIOA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Legebiltzarrak Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari eskatzen dio:

1. Ebaluazioa egin dezala 2018-2020 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren orain arteko betetze-mailari buruz eta, bi hilabeteko epean, Legebiltzarrera igorri dezala ebaluazioaren emaitzak eta hobetu beharreko irizpideak jasoko dituen txostena.
2. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ateratzen dituen kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, nazioarteko eremua eta izaera dutenetan, kategoria absolutuan eta emakumezkoen liga nazionaletan, kategoria absolutuen dirulaguntzetan emakumeei zuzendutako kantitate ekonomikoa areagotu dezala.
3. Legebiltzarrera igorri dezala 2015ean Kirol Zuzendaritzak Legebiltzarrean aurkezturiko Kirol Eremuan Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasuna sustatzeko Planaren bidez egikaritu diren ekintzen txostena.
4. 2020ra eguneratu dezala goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko dirulaguntzak arautzen dituen agindua, emakumeen goi-mailako lehiaketak lehenesteko helburuarekin.
5. Halaber, urratsak egin ditzala EAE eta nazioarte

**Kirolean emakumeen eta gizonen artean dagoen arrakalari buruz** (Zuzenketak)  
(11/11.02.01.00611)

Mahaiak, 2019ko irailaren 17ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea Elkarrekin Podemos talde parlamentarioaren legez besteko proposamenari aurkeztutako ondoko zuzenketak, eta agindu du Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

**EUSKAL TALDE PARLAMENTARIO POPULARRA**

**OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Emakunderi eskatzen dio azter dezala zein den emakumeak Euskadiko kirolean, maila guztietan, duen presentzia, egoki irizten dien gomendioekin, modu integralean, emakumeen kirola sustatzeko eta hautematen diren gabeziei erantzuteko, erakunde, federazio, kirol-klub eta kirolarekin zerikusia duten eragileei zuzendua".

**GRUPO PARLAMENTARIO EH BILDU**

**ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Departamento de Cultura y Política Lingüística a que:

1. Realice una evaluación sobre el nivel actual de cumplimiento del Plan Estratégico de Subvenciones para el periodo 2018-2020 y remita al Parlamento, en el plazo de dos meses, un informe que recoja los resultados de dicha evaluación y los criterios que deben ser mejorados.
2. Incremente la cantidad económica destinada a las mujeres en las ayudas a categorías absolutas convocadas por el Departamento de Cultura y Política Lingüística destinadas a participar en competiciones deportivas oficiales, de ámbito y carácter internacional, en categoría absoluta y en ligas femeninas nacionales.
3. Remita al Parlamento el informe sobre las actuaciones realizadas en cumplimiento del Plan de Promoción de la Igualdad entre Mujeres y Hombres en el Sector Deportivo presentado en el Parlamento por la Dirección de Deportes en 2015.
4. Actualice a 2020 la orden que regula las ayudas para la organización de competiciones deportivas de alto nivel con el objetivo de dar prioridad a las competiciones femeninas de alto nivel.
5. Asimismo, dé pasos para organizar en el 2020



mailan erreferentzia izatea lortu duen Emakumeen Bira 2020. urtean antolatzeko eta Women's World Tour egutegian berriro txertatzeko.

6. Zentzu horretan, Euskal Herria nazioartean emakumeen goi-mailako kirol-lehiaketetan erreferentziatzeko erakusleiho bilakatzeko, hausnarketa bat abiatu dezala kirol-eragile desberdinekin, identifikatzeko zein goi-mailako kirolean izan daitekeen bideragarria kirol-lehiaketen antolaketa sustatzea".

## **EUZKO ABERTZALEAK ETA EUSKAL SOZIALISTAK TALDE PARLAMENTARIOAK**

### **OSOKO ZUZENKETA**

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio:

1. Euskal kirol-federazioei ematen dien laguntzen baitan, sar ditzala klausulak eta irizpideak emakumeak kirol federatutan sartzea bultzatzeko.
2. Euskal Kirol Federazioen Batasunarekin elkarlanean, formakuntza eta sentsibilizazio-kampainak egin ditzala euskal federazioetan berdintasun-estrategiak ezartzeko.
3. Gidak eta azterketak egin ditzala, emakumeen inkorporazio osoa lortzen laguntzeko, ez bakarrik kirolaren eremuan, baizik eta baita zuzendaritza- eta sektoreko zuzendaritza-eremuetan ere".

\*\*\*

la Emakumeen Bira, prueba que ha conseguido ser referente tanto a nivel de la CAPV como a nivel internacional, y para incluirla nuevamente en el calendario Women's World Tour.

6. En ese sentido, para que Euskal Herria se convierta en un escaparate de referencia a nivel internacional en lo que a competiciones deportivas femeninas de alto nivel se refiere, ponga en marcha una reflexión con las y los diferentes agentes deportivos a fin de identificar en qué deportes de alto nivel puede ser viable el fomento de la organización de competiciones deportivas".

## **GRUPOS PARLAMENTARIOS NACIONALISTAS VASCOS Y SOCIALISTAS VASCOS**

### **ENMIENDA DE TOTALIDAD**

"El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco:

1. A que, dentro de las ayudas que concede a las federaciones deportivas vascas, incorpore cláusulas y criterios para fomentar la incorporación de las mujeres en el deporte federado.
2. A que, en colaboración con la Unión de Federaciones Deportivas Vascas, realice formación y campañas de sensibilización para implementar estrategias de igualdad en las federaciones vascas.
3. A realizar guías y estudios que contribuyan a la incorporación plena de las mujeres, no únicamente en el ámbito deportivo, sino también en los ámbitos de dirección y de dirección del sector".

\*\*\*





8. gaia. **Mozioa, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak aurkeztua, saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz. Eztabaida eta behin betiko ebazpena.**  
[11\11\03\00\00143]

-----

. Mozioa aurkeztea: 2019-06-17

-----

Osoko bilkurako izapidetzea (Erregelamenduko 175. eta 182. artikulua):

1. Talde proposatzailearen hitzaldia (15 minutu)
2. Zuzenketak egin dituzten taldeen txanda, zuzenketarik egin bada (10 minutu)
3. Zuzenketarik egin ez duten taldeen txanda (10 minutu)
4. Ihardespen-txanda (5 minutu)
5. Bozketa

Asunto 8. **Debate y resolución definitiva de la moción presentada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales.** [11\11\03\00\00143]

-----

. Presentación de la moción: 17.06.2019

-----

Tramitación en el pleno (artículos 175 y 182 del Reglamento):

1. Intervención del grupo proponente (15 minutos)
2. Turno de grupos enmendantes, si hubiere (10 minutos)
3. Turno de grupos no enmendantes (10 minutos)
4. Turno de réplica (5 minutos)
5. Votación





*Relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales* (Admisión a trámite)  
(11/11.03.00.00143)

La Mesa, en su reunión del día 18 de junio de 2019, acuerda admitir a trámite la MOCIÓN consecuencia de la interpelación formulada por D. Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, y ordena su remisión al Gobierno Vasco y su publicación en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco.

Los grupos parlamentarios, conforme a lo dispuesto en el artículo 182.2 del vigente Reglamento de la Cámara, podrán presentar, hasta 24 horas antes del comienzo de la sesión plenaria en que se debata esta moción, las enmiendas que consideren pertinentes, mediante escrito motivado y dirigido a la Mesa.

**La presidenta del Parlamento Vasco  
Bakartxo Tejeria Otermin**

A la Mesa del Parlamento Vasco

Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco, al amparo del vigente Reglamento tiene el honor de presentar la siguiente moción consecuencia interpelación, relativa a la exclusión de las farmacias de la Orden de 14 de mayo de 2019, de la Consejera de Turismo, Comercio y Consumo, por la que se regula y convoca para el ejercicio 2019, el programa de apoyo a la Modernización de Establecimientos Comerciales (11\10\04\01\00235)

Justificación

Sustanciada en el pleno celebrado con fecha 14 de junio la citada interpelación, se solicita respaldo de la Cámara para la siguiente moción:

El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco a que reintegre a las oficinas de farmacia, como entidades beneficiarias, en las órdenes del Departamento de Turismo, Comercio y Consumo en las que se regulan y convocan los programas de apoyo a la modernización de establecimientos comerciales.

En Vitoria, a 17 de junio de 2019

**Carmelo Barrio Baroja, parlamentario del grupo Popular Vasco. Borja Sémper Pascual, portavoz**

\*\*\*

*Saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz* (Izapidetzeko onartzea)  
(11/11.03.00.00143)

Mahaiak, 2019ko ekainaren 18ko bileran, erabaki du izapidetzeko onartzea ondoko MOZIOA, Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak egin zuen interpelazioaren ondorioz aurkeztutakoa, eta agindu du Eusko Jaurlaritzari bidal dakiola eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitarara dadila.

Talde parlamentarioek, Ganberan indarrean dagoen Erregelamenduko 182.2 artikuluan adierazitakoari jarraituz, egoki irizitako zuzenketak aurkeztu ahal izango dituzte, mozio hau eztabaidatzen den osoko bilkura hasi baino 24 ordu lehenago beranduen ere, Mahaiari idazki arrazoitua bidaliz.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria  
Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Carmelo Barrio Baroja Euskal Talde Popularreko legebiltzarkideak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, interpelazioaren ondoriozko mozio hau aurkezten du, saltegiak modernizatzeko laguntza-programarako arauak ezarri eta 2019ko ekitaldirako deialdia egiten duen Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2019ko maiatzaren 14ko Aginduan farmaziak kanpoan uzteari buruz (11\10\04\01\00235)

Arrazoiak

Aipatutako interpelazioa ekainaren 14an egindako osoko bilkuran gauzatu ondoren, honako mozio hau babesteko eskatzen zaio Ganberari:

Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, berriz sar ditzala farmaziak, erakunde onuradun gisa, saltegiak modernizatzeko laguntza-programetarako arauak ezarri eta ekitaldietarako deialdiak egiten dituzten Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko aginduetan.

Gasteizen, 2019ko ekainaren 17an

**Carmelo Barrio Baroja, Euskal Talde Popularreko legebiltzarkidea. Borja Sémper Pascual, bozeramailea**

\*\*\*



